

2.- Askokā saltzen den ekoizkietan edo salmentako prezioa elikadurazko ekoizkiaren zenbateko edo tamainaren arabera erabakitzen denean ere prezioa neurtzeko erabiltzen den unitatez adieraziko da, horretarako, elikadurazko ekoizkiaren kilogramo batentzako edo litro batentzako zenbatekoa jotzen dela baliagarritzat.

3.- 50 gramo edo 50 mililitro baino gutxiagoko edo berdineko zenbatekoz komertzializatzen diren elikadurazko ekoizkiak edo 10 Kg. edo 10 litro baino gehiagoko edo berdineko zenbatekoz, neurtzeko erabiltzen den unitatearen prezioa adieraztetik salbu egongo dira.

Halaber, elikadurazko ekoizkiak, ustiatu diren tokian bertan saltzen zaizkionean azken kontsumatzaileari, ez da eskatuko neurtzeko erabiltzen den unitatearen salmenta-prezioaren adierazpenik.

2. *Artikuluia.*- Aurreko artikuluan dagoen betebeharrak erabiltzeko zernolakoak eta baldintzak, Eusko Jaurlaritzak erabakiko ditu Dekretu baten bidez.

#### AZKEN ERABAKIAK

*Lehenengoa.*- Iharduera Komertzialaren Antolamenduari buruzko Maiatzaren 19ko 9/83 Legeko 34. artikulua, Legintz Dekretu honetan agindutakoaren aurka dagoen guztian, indargabeturik gelditzen da.

*Bigarrena.*- Agindu honek, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin egunaren biharamonean hartuko du indarra.

Gasteiz, 1986.eko Irailak 9.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industria eta Merkataritza Sailburua,  
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

2052

Irailaren 9ko 5/86 LEGEGINTZ DEKRETOA, engainabide izan daitekeen publizitateari buruzkoa.

Jaurlaritzak, Engainabide izan daitekeen Publizitateari buruzko Irailaren 9ko 5/1986 Legegintz Dekretua onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko biztanle guztiei. Ondorioz, bete eta betearazi dezatela agintzen diet Euskadiko biztanle guztiei, nahiz partikular, nahiz agintari izan.

Gasteiz, 1986.eko Irailak 9.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Europako Komunitateen lege ordenamendua Euskal Herriko Autonomia Elkartearen eremuan hartzeari buruzko Eusko Legebiltzarraren otsailaren 19ko 2/86 Legeak, bere Eraskinean sartzen diren legeek araupetutako arloei buruz lege mailako erabakiak emateko esku ematen dio Eusko Jaurlaritzari Elkarteko lege ordenamenduari lege horiek egokitu ahal izateko eta bai esku ematen dio ere legezko garapena behar izan, araupetu gabe egon, 1985.eko azaroaren 26an indarrean dauden eta Europako Komunitatearen arauen gai izan daitezkeen beste arlo batzuri buruzko erabakiak hartzeko.

Engainabide izan daitekeen Publizitatea araupetzea da Legegintz Dekretu honen xedea EEE-ko Kontseilua-ren 450/84 Direktibak dioenaren arabera.

2. En aquellos productos que se vendan a granel o en los que el precio de venta se determine en función de la cantidad o volumen del producto alimenticio se indicará así mismo el precio por unidad de medida, entendiéndose por tal el precio válido para la cantidad de 1 kilogramo o 1 litro del producto alimenticio.

3. Estarán exentos de la indicación del precio por unidad de medida los productos alimenticios-comercializados en cantidades inferiores o iguales a 50 gramos ó 50 mililitros o en cantidades superiores o iguales a 10 Kgs. ó 10 litros.

Asimismo no se exigirá la indicación del precio de venta por unidad de medida de los productos alimenticios que se vendan directamente al consumidor final en la explotación donde se hayan producido.

*Artículo 2.-* El Gobierno Vasco, mediante Decreto determinará los supuestos y condiciones de aplicación de la obligación contenida en el artículo anterior.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.-* Queda derogado el artículo 34 de la ley 9/83, de 19 de Mayo, de Ordenación de la Actividad Comercial, en lo que se oponga a lo preceptuado en el presente Decreto Legislativo.

*Segunda.-* La presente disposición entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de Septiembre de 1986.

El Lehendakari,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria y Comercio,  
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

2052

DECRETO LEGISLATIVO 5/1986, de 9 de Septiembre, sobre publicidad engañosa.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Gobierno ha aprobado el Decreto Legislativo 5/1986, de 9 de Septiembre, sobre Publicidad Engañosa. Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades, que lo guarden y hagan guardarlo.

Vitoria-Gasteiz, a 9 de Septiembre de 1986.

El Lehendakari,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

La Ley 2/86, de 19 de febrero, del Parlamento Vasco, sobre la recepción del ordenamiento jurídico de las Comunidades Europeas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco autoriza al Gobierno Vasco para dictar disposiciones con rango de ley sobre las materias reguladas por las leyes incluidas en su Anexo a fin de adecuarlas al ordenamiento jurídico comunitario, así como sobre otras materias objeto de normas comunitarias, vigentes el 26 de noviembre de 1985, que exijan desarrollo por ley y no se hallen actualmente reguladas.

El presente Decreto Legislativo tiene por objeto la regulación de la Publicidad Engañosa tal y como se contienen en la Directiva del Consejo 84/450/CEE.

Merkataritza alorrak hartzen dituen eremu barruko jardunen publizitatea araupetzen duen Merkataritza Jardunaren Antolaketarako Legeko IV Idazpurua, Direktibaren edukinari erabat egokitzea behar-beharrezkoa da, Lege horren oinarri diren printzipioak eta Europako Elkarteko Direktibarenak oso berdinak baldin badira ere.

Bestalde, EEE-ko 450/84 Direktibak hartzen duen aginte eremua Merkataritza Jardunaren Antolaketarako Legeak hartzen duena baino askoz zabalagoa da, hark merkataritza jardunen eremu barruan egiten den eta engainabide izan daitekeen publizitatea hartzeaz gain, ondasunen horniketa edo zerbitzuak egitea sustatzeko xedez, merkataritza, industria, artesautza edo liberal mailako eremuan egiten den publizitatea ere hartzen bait du; ondorioz, beharrezkoa da, 2/86 Legeko 1. artikuluan aipatzen den baimenaz baliatuz, engainabide izan daitekeen publizitate-arloa araupetzea Europako Elkartearen arauak ematen duen agindua bete ahal izateko.

Horiek horrela, Industria eta Merkataritza Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritza Kontseiluak 1986.eko Irailaren 9an egindako batzarrean aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT:

1. *Artikulua.*— Ondasunen horniketa edo zerbitzuak egiteko xedez, merkataritza, industria, artesautza edo liberal jardunen eremu barruan egiten den edozein eratako komunikazioa, da publizitatea.

2. *Artikulua.*— Engainabide izan daitekeen edozein eratako publizitatea egitea debekatuta gelditzen da, engainabide izan daitekeen publizitateaz honako hau ulertzen dela: Edozein eratarra, aurkezmodua barne, haiantzako deneko edo haiengan eragina dueneko pertsonen gaizki ulertarazteaz aparte, engainotasuna duenez, horien portaera ekonomikoarengan eragina izan leza-keen publizitatea hain zuzen.

3. *Artikulua.*— Publizitate batek engainotasuna duen ala ez zehazteko, bere elemento guztiak hartuko dira kontutan eta honako hauei dagozkien ñabardurak bereziki:

a) Ondasun edo zerbitzuen zernolakoak, adibidez, disonibilitatea, zerdena, egitemodua eta dituen gaiak; egite edo prestakuntzarako prozedimendua eta egin zeneko eguna; berezitasunak, erabilkerak, kopurua, zehaztasunak, geografiako edo merkataritzazko nondikakoa, edo erabiltzeak ekar ditzakeen ondorioak, edo ondasun edo zerbitzuen gain egindako frogak eta kontrolak emandako emaitzak eta funtsezko zernolakoak;

b) Prezioa edo hori finkatzemodua eta ondasunen hornitzeko edo zerbitzuak egiteko baldintzak;

c) Iragargilearen naturaleza, zernolakoak eta eskubi- deak, adibidez, bere nortasuna eta ondasunak, bere kualifikapenak eta industria, merkataritza edo adimen mailako jabetasun-eskubideak, edo jaso dituen sari edo ohorezko aipamenak.

4. *Artikulua.*— 1. Ezarrita dauden legebideak erabiltze-aren kaltetan gabe, Eusko Jaurlaritzak, ofizioz edo norbaitek hala eskatuta, engainabide izan daitekeen publizitate horren debekua edo ez egitea xedetzat duten prozedimenduei hasera eman ahal izango die, alegazio,

El Título IV de la Ley de Ordenación de la Actividad Comercial regula la publicidad en el marco de las actividades comprendidas en su ámbito de aplicación y, si bien los principios que la inspiran son muy similares a los de la Directiva comunitaria, es preciso adecuarlo completamente a su contenido.

Por otra parte, el ámbito de aplicación de la Directiva 84/450/CEE es más amplio que el de la Ley de Ordenación de la Actividad Comercial, ya que no se refiere exclusivamente a la publicidad engañosa realizada en el marco de las actividades comerciales, sino que alcanza a la publicidad realizada en el marco de una actividad comercial, industrial, artesanal o liberal con el fin de promover el suministro de bienes o la prestación de servicios, siendo preciso, en consecuencia, regular más ampliamente la materia de la publicidad engañosa al amparo de la autorización contemplada en el artículo 1 de la ley 2/86, a fin de cumplir el mandato contenido en la norma comunitaria.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria y Comercio, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 9 de septiembre de 1986.

#### DISPONGO:

*Artículo 1.*— Se entiende por publicidad toda forma de comunicación realizada en el marco de una actividad comercial, industrial, artesanal o liberal con el fin de promover el suministro de bienes o la prestación de servicios.

*Artículo 2.*— Queda prohibida toda publicidad engañosa, entendiéndose por tal aquella que de una manera cualquiera, incluida su presentación, sea susceptible de inducir a error a las personas a las que se dirige o afecta, y que, debido a su carácter engañoso, puede afectar a su comportamiento económico.

*Artículo 3.*— Para determinar si una publicidad es engañosa, se tendrán en cuenta todos sus elementos y principalmente sus indicaciones concernientes a:

a) Las características de los bienes o servicios, tales como su disponibilidad, su naturaleza, su ejecución, su composición, el procedimiento y la fecha de fabricación o de prestación, su carácter apropiado, sus utilidades, su cantidad, sus especificaciones, su origen geográfico o comercial o los resultados que pueden esperarse de su utilización, o los resultados y las características esenciales de las pruebas o controles efectuados sobre los bienes o los servicios;

b) El precio o su modo de fijación y las condiciones de suministro de bienes o de prestación de servicios;

c) La naturaleza, las características y los derechos del anunciante, tales como su identidad y su patrimonio, sus cualificaciones y sus derechos de propiedad industrial, comercial o intelectual, o los premios que haya recibido o sus distinciones.

*Artículo 4.*— 1. Sin perjuicio de las acciones legalmente establecidas que pudieran ejercitarse, el Gobierno Vasco de oficio o a instancia de parte podrá iniciar un procedimiento tendente a la prohibición o a ordenar el cese de una publicidad engañosa previa solicitud al

ohar edo publizitate-zerbitzuak justifika ditzaten elemento guztiak Jaurlaritzari eskain diezazkiola iragargileari edo geroagoko iragargileari aurrez eskatuko dizkiola.

2. Aurreko apartaduan ezartzen den xede berdinez, gainbegiratzeko eta Jaurlaritzari egin diezazkioten errekamazioei buruz horrek har ditzan erabakiak egiatan bete daitezen inposatzeko beharrezko ahalbideak izan ditzan eta hainbat sailerako kidez osatutako organo bat sortuko da arauz.

3. Horretan artezko interesa izan dezaten merkatariek, kontsumitzaileek, enpresariak, profesionalek eta Kontsumitzaileen elkarteek lehenengo apartaduan zehaztutako prozedimenduari hasera eman diezaioteneko eskea egin ahal izango dute.

5. *Artikulu 5.* - Ofizioz edo norbaitek hala eskatu ondoren, eta, publizitate-jardun batek engainotasuna izan dezakeela uste izan dadin kasuetan, aurreko artikuluan aipatzen den organo horrek, publizitate hori egitea debekatu edo ez dadila egin erabaki ahal izango du badaezpadan, horretarako arrazoiak jarriz eta azkenean har daitekeen erabakiaren kaltetan gabe.

6. *Artikulu 6.* - Publizitate bat engainabide izan daitekeela behin-betiko erabakiz ebatzi dadinean, iragargileari horren berri emango zaio, publizitate hori egin ez dadin edo egiteari utzi diezaion.

Iragargileak erabaki hori ez betetzeak nahitaez bete-araztea ekarriko du eta zigorgai izan daitekeen legehaustea izango da hurrengo artikuluan ezartzen denaren arabera.

7. *Artikulu 7.* - Erabaki honetan ezartzen dena ez betetzea, isunez, jarduna aldibaterako utz dadila aginduz edo, hala behar izan dadinean, tegia itxiz zigortuko da.

Dena-dela, honako erizpide hauen arabera ezarriko da isunen gradua:

- Gizarte mailako eragina.
- Kontsumitzailearekiko kaltea.
- Lege haustuarearen espekulazio-jarrera.
- Legehaustearen gai izan zen jardunaren gutzirako zenbatekoa.
- Ez zilegiztat jotzen den irabazi-zenbatekoa.

Hainbat sailerako kidez osatutako organo horri esku ematen zaio diru-zigorak ezartzeko 3.000.000 pesetara arte, Jaurlaritza Kontseiluari dagokiola lehenengo parrafoan ezartzen diren gainontzekoak onartzea.

#### AZKEN ERABAKIAK

1. Maiatzaren 19ko 9/1983 Legeko IV Idazpurua indargabetuta gelditzen da Legegintz Dekreto honek ezartzen duenaren kontrakoak direnetan.

2. Eusko Jaurlaritzari esku ematen zaio legegintz Dekreto hau garatu ahal izateko.

3. Dekreto hau, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitara dadin egunaren biharamunetik hasita, jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1986.eko Irailak 9.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industria eta Merkataritza Sailburua,  
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

anunciante o futuro anunciante de la puesta a su disposición de todos los elementos que justifiquen las alegaciones, indicaciones o prestaciones publicitarias.

2. Con la finalidad establecida en el apartado anterior, reglamentariamente se constituirá un órgano interdepartamental que desde el presupuesto de la imparcialidad disponga de las facultades adecuadas para supervisar e imponer de manera eficaz la observancia de sus decisiones sobre las reclamaciones que le sean formuladas.

3. Podrán instar la iniciación del procedimiento señalado en el apartado primero, los comerciantes, consumidores, empresarios y profesionales que tengan un interés directo y legítimo, así como las asociaciones de Consumidores.

*Artículo 5.* - Iniciado un procedimiento de oficio o a instancia de parte en supuestos en los que se presume que una actividad publicitaria pueda ser constitutiva de publicidad engañosa, el órgano establecido en el artículo anterior podrá disponer cautelarmente la prohibición de su difusión u ordenar su cese mediante resolución motivada y sin perjuicio de la que definitivamente se adopte.

*Artículo 6.* - Cuando por resolución definitiva se determine la existencia de una publicidad engañosa, aquella será notificada al anunciante con el fin de que dicha publicidad no sea objeto de difusión o que cese de haber sido iniciada.

El incumplimiento de la resolución por el anunciante dará lugar a su ejecución forzosa y constituirá infracción administrativa sancionable con arreglo a lo dispuesto en el artículo siguiente.

*Artículo 7.* - Las infracciones de lo establecido en la presente disposición serán sancionadas con multa, cese temporal de la actividad o cierre del establecimiento, en su caso.

En todo caso la graduación de las multas se establecerá de acuerdo con los siguientes criterios.

- Trascendencia social.
- Perjuicio al consumidor.
- Comportamiento especulativo del infractor.
- Cuantía global de la operación objeto de la infracción.
- Importe del beneficio considerado ilícito.

El órgano administrativo interdepartamental estará facultado para la imposición de sanciones económicas hasta una cuantía de 3.000.000 de pesetas, debiendo elevar al Consejo de Gobierno para su aprobación el resto de las establecidas en el párrafo primero.

#### DISPOSICIONES FINALES

1.- Queda derogado el título IV de la ley 9/1983, de 19 de Mayo, en lo que se opongá en lo dispuesto en el presente Decreto Legislativo.

2.- Queda facultado el Gobierno Vasco para el desarrollo del presente Decreto legislativo.

3.- La presente disposición entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 9 de Septiembre de 1986.

El Lehendakari,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria y Comercio,  
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.